

82. FITXA. ARABA – Arabako kuadrillean enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdia 2025eko ekitaldirako

Nori zuzenduta: Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak, salbu eta Vitoria-Gasteizko Kuadrilla.

Sartzeko esteka: [Arabako Foru Aldundiaren Egoitza elektronikoa - egoitza](#)

Erreferentziazko arauak: [Foru Agindua 35/2025 urtarrilaren 30ekoa. Onestea Arabako kuadrillean enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdia 2025eko ekitaldirako](#)

Eremuak: Enplegua

Zenbatekoa: 122.412 €

Aurkezteko epea: 2025/03/28

Laburpena

Arabako kuadrillean enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdiaren xedea da Arabako kuadrillek **prestakuntza ekintzak** egin ditzaten bultzatzea eta sustatzea, **biztanle aktiboen** (lanean ari direnen zein lanik ez dutenen) **gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko** eta gure ekonomiaren **lehiakortasuna areagotzeko**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Biztanle aktiboentzako (lanean ari direnak zein lanik ez dutenak) prestakuntzako ekintzek jaso ahal izango dute laguntza. Ekintza horiek lan merkatuaren beharrak eta eskariak bete behar dituzte, eta honako xede hauek eduki behar dituzte lehentasun:

- Langabeen **enplegagarritasuna** eta lana duten langileen **trebakuntza** hobetzea.
- Arabako enpresek eskatutako jakintza, metodo edo teknikei buruzko **gaitasun profesionala** eskaintzea.
- **Teknologia berrien** sarrera erraztea eta ekoizpen sistema orokorraren lehiakortasuna hobetzea.
- Trebakuntza hobetzea lanbide trebakuntzaren estatuko sistemako **profesionaltasun ziurtagiriren** bat lortzeko, aurretik sistema horretan sartzeko baldintzak beteta.

Prestakuntza ekintzek jorratu beharreko gaiak zuzenean egon beharko dira lotuta **Arabako sistema produktiboarekin** eta Arabako enpresen eta lan merkatuaren beharrezanekin. Beraz, kultura, aisia eta astialdia eta beste arlo batzuk ez dira landuko prestakuntza ekintzetan, eta kanpoan geratuko dira, halaber, administrazio publikoetako funtzionarioentzako edo lanpostu nahiz kargu publikoa dutenentzako prestakuntza ekintzak.

Kuadrilla bakoitzak gehienez ere **15** ikastarotarako laguntza eskatu ahal izango du.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede diren prestakuntza ekintzak deialdiaren ebazpena ematen denetik aurrera hasi beharko dira eta amaituta egon beharko dira **2025eko azaroaren 21erako**.